

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUPETZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetzen dituen foru arauan ezarritakoa oinarritzat hartuta eta batez ere zergari buruzko arauan ezarritakoari jarraiki Trakzio Mekanikodun ibilgailuen gaineko Zerga eskatu du Udalak. Zerga hori eskatzeko oinarritzat hartuko da ordenantza hau eta bertan agertzen den eranskina, aplikatu beharreko tarifen taulei buruzkoa.

2. ARTIKULUA

Udal barruti osoan aplikatuko da ordenantza hau.

II.-ZERGA EGITATEA

3. ARTIKULUA

Ondoko hauek osatzen dute zergaren zerga egitatea:

1.-Herri bideetatik ibil daitezkeen trakzio mekanikodun ibilgailuen titulartasuna; ibilgailu horien mota eta kategoria dena delakoa ere.

2.- Bidean ibiltzeko gai diren ibilgailuzat hartuko dira behar diren erregistro publikoetan matrikulatuta dauden ibilgailuak, beti ere erregistro horietan baxa eman ez bazaie. Zerga honen ondorenerako gainera, gai diren ibilgailuzat hartuko dira aldi baterako baimena eta turismo matrikula dituzten ibilgailuak.

3.-Honako hauek ez daude zerga honi lotuta:

a).- Erregistroetan baxa eman zaien arren, antzinako modeloak direnez eta salbuespen moduan erakusketa, ekitaldi edo era horretako ibilgailuen lasterketetan aritzeko baimena duten ibilgailuak.

b).- Trakzio mekanikodun ibilgailuak daramatzaten atoiak eta erdi atoiak; 750 kilogramo baino gutxiagoko zama erabilgarria dutenak.

III.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

4. ARTIKULUA.

1.- Zerga ordaintzetik salbuetsita daude:

a) Estatuko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta Toki Erakundeetako herritarren defentsarako edo segurtasunerako ibilgailu ofizialak.

b) Bestelako herrialdeetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta kontsul-funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.
Halaber, Espainiar Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten haien funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako ibilgailuak eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatuta badaude.

Halaber, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baizik ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, eta aplikatu ere urrituek eurek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako hauexek hartuko dira pertsona ezindutzat:

a') % 33 - 65 bitarteko minusbalio-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta duten pertsonak; halakotzat joko dira minusbalio-gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

b') % 65eko minusbalio-gradua edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. Eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

Hemen ezarrita dauden salbuespenak arautuak dira, eta erreguzko izaera dute. Salbuespenok eskumena duen udal-organoak emandako administrazio-egintza adieraziaren bidez emango zaizkie eskatutako

betekizunak betetzen dituzten subjektu pasiboak, haiek eskabidea egin ondoren. Eskabide horretan, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia jaso beharko dituzte, eta, horrekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

-Zirkulazioko baimenaren eta salbuespena eskatzen den ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia.

-Minusbalioa, eta horrela dagokionean, mugitzeko gaitasuna murriztuta edukitzea, egiaztatzen duen agiria organo eskudunak emandakoa.

-Zinpeko aitortzea, bere izenean matrikulatutako ibilgailua ezinduak, ez beste inork, erabiliko duela adieraztekoa.

Udal administrazioak salbuespena onartu eta gero, beraz egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuei.

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letraren testu zaharrean ezarritakoa aplikatuta 3/2009 Foru araua indarrean jarri aurretik Zergaren kargatik salbuetsita egon diren ibilgailuek salbuespena eskatu beharko dute berriro. Salbuespena: udalari artikuluko horri emandako testu berrian ezarritako betekizunak betetzen direla frogatuz gero, ez dago egongo salbuespena berriz eskatu beharrik.

Oro har, salbuespena emanez gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian sortzen ditu ondorioak; ez du atzera eraginik. Hala ere, likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen bada, ezinbestekoa da zerga-zorra sortu den egunean aplikatzeko betekizunak betetzea.

f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia azaldu behar dituzte. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, beraz egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

2.-Ibilgailuak gutxienez hogeita bost urte baldin baditu, fabrikatu zenetik hogeita bost urte igaro badira alegia, zergaren kuota 100eko 100eko hobaria jasoko dute. Ibilgailuaren fabrikazio data ezezaguna baldin bada matrikulatu zen lehen aldia hartuko da oinarritzat edo bestela auto mota edo bariante hori egiteari utzi zioten urtea.

Goiko atalean adierazitakoa hobariaz gozatu ahal izateko interesdunek eurek eskatu beharko dute hobaria eta horretarako ibilgailuaren antzintasuna egiaztatu beharko dute, horretarako aurkeztu beharreko agirien bidez.

3.- Kuotaren % 60ko hobaria ibilgailu elektrikoetan.

4.- Kuotaren %50eko hobaria energia elektrikoa eta erregaia tartekatzen duten ibilgailuetan.

Interesdunak 3. eta 4. paragrafoetan agertzen diren hobariak jasotzeko eskaera egin beharko du eta agiri bidez justifikatu behar dira.

5.- %50eko hobaria emango zaie bost ezerleku edo gehiagoko *turismo moduen tributatzen duten* ibilgailuei aplikatzen zaien zergaren tarifari, baldin eta ibilgailu horren titularra indarreko legerian ezarritakoarekin bat etorritik ugaritzat hartzen den familiako kidea bada. Familiako ibilgailu bakarrari emango zaio hobaria.

Interesdunak hobaria jasotzeko eskatu egin beharko du eta honako dokumentazio hau aurkeztu:

- Ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia.
- Familia ugariaren titulua.

Oro har, hobaria emanaz gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian sortzen ditu ondorioak; ez du atzera eraginik. Hala ere, likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen bada, ezinbestekoa da zerga-zorra sortu den egunean aplikatzeko betekizunak betetzea.

IV.-SUBJEKTU PASIBOAK.

5. ARTIKULUA

Zerga honetako subjektu pasiboak dira, ibilgailuaren zirkulazio baimenean euren izena agertzen diren subjektuak eta zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan agertzen diren pertsona fisiko, juridiko eta entitateak.

V.- KUOTA.

6. ARTIKULUA

1.- Eranskinean agertzen den tarifa taularen arabera eskatuko da zerga:

2.- Zein ibilgailu mota den zehazteko oinarritzat hartuko da araubidean ezarritakoa eta gainera honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a).- Turismo ibilgailu bat, pertsonak eta gauzak, biak aldi berean garraiatzeko egokitzen bada eta horretarako eserlekuak eta kristalak kentzen badira, ateen tamaina edo kokapena aldatzen bada edo beste zenbait aldaketa egiten baldin badira, ibilgailuaren oinarritzko modelo aldatu gabe beti ere; turismo ibilgailu hori furgonetatzat hartuko da. Furgonetek autoek ordaindu beharreko zergak ordaindu beharko dituzte, hau da zerga potentzia oinarritzat hartuta; honako kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa.- Ibilgailua bederatzi lagun edo gehiago eramateko prestatuta baldin badago (gidaria barne); autobusek ordaindu behar duten zerga ordaindu beharko da.

Bigarrena.- Ibilgailuak 525 kilogramoko zama erabilgarria garraiatzeko baimena badu, kamioiek ordaintzen duten zerga ordaindu beharko da.

b).- Zerga honen ondorenerako motokarroak motozikleta moduan hartuko dira; zerga ordaintzerakoan bada, zilindrada hartuko da oinarritzat

c).- Ibilgailu artikulatuetan berriz, aldi berean eta banatuta ordaindu beharko dituzte zergak garraiatzeko ahalmena duenak eta ibilgailu horrek arrastan daramatzan atoiak eta erdi-atoiak.

d).- Duten edukiera dela eta matrikulatu behar ez diren ziklomotore, atoi eta erdi-atoiak bidean ibiltzeko gai direla esango da, industri ordezkariak horretarako behar den ziurtagiria ematen duenean edo ibilgailu horiek zirkulazioan hasten diren unean.

e) Trakzio mekanikodun ibilgailuek garraiatu edo arrastan eraman gabe herri bideetan euren kabuz ibil daitezkeen makina autopropulsatuek zenbateko zerga ordaindu behar duten finkatzeko, oinarritzat hartuko dira traktoreek ordaindu beharreko tarifak.

f).- Nolanahi ere, tarifetako D) letran agertzen den "traktore" izen orokorrak barne hartzen ditu hala kamioi traktoreak nola "obra eta zerbitzuetako traktoreak"

g).- Zaldipotentzia fiskala zaldi fiskaletan adierazten da, eta Ibilgailu Araudi Orokorrean, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikulua segituz, V. Eraskinean agindutakoa kontutan hartuta.

h).- Autokarabaneke turismo moduan tributatuko dute.

VI.- EZARRALDIA ETA SORTZAPENA

7. ARTIKULUA -

1.- Ezarraldia eta egutegiko urtea bat datoz, ibilgailuaren lehenengo eskuraketa edo baxa kasuetan izan ezik. Ezarraldia, kasu hauetan, eskuraketa egiten den egunean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan ibilgailuari baxa eman zaion egunean amaituko da.

2.- Ezarraldiaren lehenengo egunean sortuko da zerga.

3.- Zerga kuotaren zenbatekoa hilabete naturalen arabera hainbanatuko da, ibilgailuaren lehenengo eskuraketaren edo behin betiko bajaren kasuetan, eta ibilgailuari alta edo baja ematen zaion eguneko hilabetea ere kontuan hartuko da. Era berean, ibilgailua ostu edo lapurtzeagatik ibilgailuari aldi baterako baja ematen bazaio, haren kuota arestian azaldutako moduan hainbanatuko da, dagokion erregistro publikoan aldi baterako baja gertatzen den unetik.

VII. KUDEAKETA

8. ARTIKULUA -

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den bizilekuko Udala arduratuko da zergaren ordainarazpenaz, likidazioaz, ikuskapenaz eta bilketaz eta tributu kudeaketaren bidez burutzen diren ekintzak Udala horrek berrikusiko ditu.

9. ARTIKULUA -

Zerga hau autolikidazio moduan eskatzeko aukera izango du Udalak.

10. ARTIKULUA

Udal administrazioak egindako ordainagiriaren bidez egiaztatuko da zerga ordaindu dela.

11. ARTIKULUA

1.- Trafiko Buruzagitzari matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtagiria edo ibilgailu baten behin-betiko baxa eskatzeko, aurretik, zerga ordainduta dagoela egiaztatu beharko dute. **Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.**

2.- Betebehar bera izango dute Trafiko Buruzagitzari ibilgailuan aldaketak egingo dituztela adierazten dioten jabeek ere, baldin eta aldaketa horien bidez, zerga honen ondoretarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen badute. Ibilgailua eskuz aldatzen baldin bada edo ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den bizilekua aldatzen baldin bada ere, berdin jokatuko da.

3. Zerga ordaindu dela egiaztatu ezean, Trafiko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen baxa edo esku aldatzei buruzko espedienterik tramitatuko.

Ibilgailuari matrikula berria jarri bazaio edo ibilgailuan egin diren aldarazpenak direla eta, ibilgailuaren sailkapena aldatu baldin bada eta horrek zergaren ondorenerako eraginik baldin badu, interesdunek aldaketa horren berri eman beharko diote Udal administrazioari eta egutegiko hogeita hamar eguneko epean; ibilgailua matrikulatu denetik edo ibilgailuaren sailkapena aldatu denetik zenbatuta; interesdunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a).- Gidatzeko baimena.
- b).- Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c).- N.A.N. edo I.F.K.

VIII.- AZKEN XEDAPENA.

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean ordenantza hau eta indarrean jarraituko du ordenantza indargabetu edo aldatu arte.

ERANSKINA.

TARIFEN KOADROA.

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota €
<i>a) Turismoak:</i>	
8 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	24,72
8 - 11,99 zerga-zaldi bitartekoak	66,74
12 - 13,99 zerga-zaldi bitartekoak	134,41
14 - 15,99 zerga-zaldi bitartekoak	164,78
16 - 19,99 zerga-zaldi bitartekoak	211,87
20 zerga-zaldi edo gehiagokoak	258,93
<i>b).- Autobusak</i>	
21 plaza baino gutxiagokoak	163,13
21 - 50 eserlekukoak	232,35
50 eserleku baino gehiagokoak	290,44
<i>C).- Kamioiak:</i>	
1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria	82,80
1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	163,13
2.999 eta 9.999 kg bitarteko zama erabilgarria	232,35
9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria	290,44
<i>d).- Traktoreak:</i>	
16 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	34,59
16 eta 24,99 zerga-zaldi bitartekoak	54,38
25 zerga-zaldi baino gehiagokoak	163,13
<i>e).- Trakzio mekanikozko ibilgailuek daramatzaten atoiak eta erdiatoiak:</i>	
1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria	34,59
1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	54,38
2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria	163,13
<i>f).- Beste ibilgailu batzuk:</i>	
Ziklomotorrak	8,65
125 cc. arteko motozikletak	8,65

125 cc. eta 250 cc. bitarteko motozikletak	14,81
250 cc. eta 500 cc. bitarteko motozikletak	29,66
500 cc. eta 1.000 cc. bitarteko motozikletak	59,31
1.000 cc.-tik gorako motozikletak	118,64